

Aprobado por Resolución de Alcaldía de 30 de junio de 2011.  
La secretaria,

**Uharteko Udalaren Musika Patronatuko tronpeta irakasle aritzeko izangaien zerrenda bat, hautapen proben bitartez, eratzeko deialdia.**

Uharteko Udalaren Alkateak, 2011ko ekainaren 30eko datarekin, deialdia hau onartu zuen bai eta jarraian aipatzen diren

**OINARRIAK**

1.-Tronpeta irakasle aritzeko izangaien zerrenda bat, hautapen proben bitartez, eratzeko deialdia iragartzen da, B mailakoa, Uharteko Udalaren Musika Patronatuko 60/010 lanpostua aldi batean betetzeko.

Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda hau lehentasuna izanen du aldez aurretik dagoen beste edozein zerrendaren aurrean.

Lanpostuak Plantilla Organikoak biltzen duen ordainsaria izanen du.

Probaldia sei hilabetekoa izanen da.

Betebeharreko funtzioak.

Tronpeta irakasle lanak burutuko ditu, bai eta Patronatuak agindutako beste edozein eginkizun, lanpostuarekin zerikusia duena betiere.

2.- Izangaien baldintzak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako hiritarra izatea, edo Europako Batasuneko bertze estatu batekoa, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen duen eremuko estatu batekoa; orobat, espainiarren eta Europako Batasuneko bertze estatuetako herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, Europako Batasuneko herritarren ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beheitikoak badira, edo goitikoak, haien kontura biziz gero.

b) Adinez nagusia izatea eta erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

c) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez izatea.

e) Tronpeta espezialitateko erdi mailako Irakasle titulua izatea.

f) EGA titulua edo baliokidea izatea, edo dagokion proba gainditzea.

Hautatuak izan eta aldi baterako kontrataziorako deituak suertatzen diren izangaiek baldintza guztiak agirien bidez kreditatu beharko dituzte, eskatzen zaien unean, dagokion kontratua gauzatu baino lehen.

Aprobado por Resolución de Alcaldía de 30 de junio de 2011.

La secretaria,

Aipatu epearen barnean, eta aski arrazoituriko ezinbesteko kasuak izan ezik, aipatu agiriak aurkezten ez badira ezin izango da kontratatu eta, beraz, egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, betiere eskabidea faltsutzeagatik legokiokkeen erantzun beharra galarazi gabe.

Aurreko baldintzak betetzeak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete behar direla ulertzeaz gain, hautapen prozesua eta kontratazio-aldia irauten den bitartean bete beharko dira.

2. puntuko baldintza guztiak, EGA titulua edo baliokidea, edo dagokion proba gainditzearena ez ezik, betetzen dituzten izangaiekin, bigarren zerrenda bat eratuko da.

Honela, onartuak diren izangai guztiak oposaketara aurkeztu ahalko dira eta bertatik baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonekin, 2.f) barne, zerrenda bat eratuko da eta lehenengoak deitzen izanen dira.

Oposaketaren bukaeran gertatuko balitz gaindituen artean ez legokeela inork baldintza guztiak beteko lituzkeenak, bigarren zerrenda bat eratuko da gainditutako izangaiekin, EGA titulurik gabekoak, eta behin lehenengo zerrenda agortuta deituak izanen liratekeenak.

### 3.- Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Uharteko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz.

Eskabideak aurkezteko epea 2011ko abuztuaren 19ra artekoa izanen da.

Eskabideak I. Eranskinean agertzen den ereduari egokituta egon beharko dira. Hauek Uharteko Udalaren Erregistro Orokorrean (San Juan plaza, 1) eskura egonen dira eta baita ere Internet bidez, [www.huarte.es](http://www.huarte.es) helbidean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek azaldu beharko dute eskatutako baldintzak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen, EGA titulurik ez duten izangaien kasuan 2 f) puntua izan ezik.

3.2. Eskabidearekin batera, behar bezala beteta, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Izangaiaren Nortasun Agiriaren edo bere naziotasuna eta identitatea egiaztatzen duen baliokidearen kopia konpultsatua.

b) Espedientea gauzatzea eta azterketa eskubide kontzeptupeko 14,00 euroko tasa ordaindu izanaren egiaztagiria. Azterketa eskubideko tasa ordaindu ez izanak izangaia baztertua izatea ekarriko du.

Aipatu tasa hori jarraian aipatzen den era hauetara egin ahalko da:

-Eskudiruzko ordainketa, edo banku transferentzia, Rural Kutxako 3008 0087 74 1447560721 kontu zenbakian, eta ordainagirian ondorengo datuak agertu beharko dira nahitaez:

-Izangaiaren izen-deiturak:

-NA/IFK.

-Kontzeptua: Oposaketako tasa.

### 4.- Epaimahai kalifikatzailea.

4.1. Epaimahaia kide hauek osatuko dute:

Aprobado por Resolución de Alcaldía de 30 de junio de 2011.  
La secretaria,

Mahaiburua: Iñaki Crespo San José J., Uharteko Udalaren Alkatea

Idazkaria: Esperanza Subiza Espinal and., Uharteko Udalaren Idazkaria

Mahaikidea: Eduardo Arburies J., Uharteko Musika Patronatuko Zuzendaria

Mahaikidea: Carlos Peñaranda Zarrantz J., Uharteko Musika Patronatuko irakaslea

Mahaikidea: Raquel Martínez Salaverria and., Uharteko Musika Patronatuko irakaslea, langileriaren legezko ordezkari gisa.

4.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da.

4.3. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

4.4. Epaimahaiak aholkulari adituak ekartzen ahal ditu probetarako.

5.- Oposaketaren garapena.

Oposaketa bi aldi izanen ditu:

5.1. Ariketa praktiko-irakaskuntzakoa:

Eskatzen den espezialitateko klase bat eman beharko du, hasiberria edo inizatua den ikasle bati, edo Epaimahaiaren aurrean garapena azaldu. Ariketa honek, gehienez ere, 20 minutuko iraupena izanen du.

Proben garapenean ez da ezinbestekoa izanen haurrik egotea.

Ariketa honek, gehienez ere, 50 puntu izanen ditu, eta baztertuak geratuko dira 25 puntutara iristen ez diren pertsonak.

5.2. Kontzertuko egitarau baten interpretazioa.

Ariketa honek, gehienez ere, 15 minutuko iraupena izanen du.

Ariketa honek, gehienez ere, 50 puntu izanen ditu, eta baztertuak geratuko dira 25 puntutara iristen ez diren pertsonak.

5.3. Bi ariketak irailaren 1ean, 10:00etan, Uharteko Musika Eskolan burutuko dira.

Izangaiak Nortasun Agiria eraman beharko dute. Bertara agertzen ez diren izangaiak baztertuak geratuko dira.

5.4. Oposaketaren azken kalifikazioa aterako da izangai bakoitzak bi ariketetan ateratako puntuen baturatik.

6.- Gainditutako pertsonen zerrenda eta deialdia.

6.1. Proben kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Uharteko Udalaren Iragarki-oholean eta [www.huarte.es](http://www.huarte.es) Web orrian argitaratuko ditu gainditutako pertsonen zerrenda ateratako puntuazio osoaren arabera eta Alkateari helaraziko dio onar dezan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera.

Berdinketaren bat emanen balitz, adinez nagusiagoa denaren alde ebatziko da.

6.2. Gainditutako izangaiak deituak izan ahalko dira, Musika Patronatuan suerta daitezkeen beharren arabera, deialdi honetako oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoa betez.

.3. Kontratatuak izanen diren pertsonak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta eman eta afiliatuko da, eta, ondorioz, bere kargura joanen da dagokion kuota, hala nola EGZ atxikipena bidezkoa den kantitatean.

8.- Helegiteak.

Aprobado por Resolución de Alcaldía de 30 de junio de 2011.

La secretaria,

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

a) Berraztertze helegitea, egintzaren organo egile beraren aurrean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi helegitea Uharteko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

c) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epearen barnean.

Epaimahai Kalifikatzailearen egintzaren aurka gora jotzeko helegitea aurkeztu ahalko da deialdia egiten duen udal organoaren aurrean, egintza edo errekurritutako akordioa jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epearen barnean.

Uharte, 2011ko ekainaren 30a.- Uharteko Udalaren Alkatea, Iñaki Crespo San José J.

Aprobado por Resolución de Alcaldía de 30 de junio de 2011.  
La secretaria,

I. ERANSKINA.

..... jaun/andrea,  
adinez nagusia, NA/identitate karta ..... duena, jaioteguna [urtea/hilabetea/ehuna]  
....., ..... [udalerrria/probintzia] jaioa, gaur egun [kalea, zenbakia,  
eskailera, solairua] .....-n bizi dena, posta  
kodea/herria ....., telefonoa....., telefono mugikorra .....

Azaltzen dut:

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez nagoela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikotatik berezita eta ez nagoela eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta.

Badudala deialdian adierazten den titulazioa.

EGA titulua edo antzekoa DUDALA / EZ DUDALA, edo DAGOKION PROBA EGIN NAHI DUDALA (ezabatu behar ez dena).

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Eskatzen dut:

Tronpeta irakasle aritzeko izangaien zerrenda bat, hautapen proben bitartez, eratzeko deialdian onartua izatea, B mailakoa, Uharteko Udalaren Musika Patronatuko 60/010 lanpostua aldi batean betetzeko.

DATUEN BABESA. Inprimaki honen bidez lortutako datu pertsonalak Uharteko Udalak Datuak Babesteko Agentzia Espainiarraren Erregistroan inskribatuta daukan artxibo automatizatura gehituko dira. Horretarako, egokia iruditu zaigu jakinaraztea datu tratamendu honek legea betetzen duela (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesekoa). Halaber, jakinarazten dizugu emaniko datuetara jotzeko eskubidea duzula, datu horiek aldatu, ezeztatu edota aurkaritza egiteko. Horretarako, idatziz zuzendu beharko zara Erregistro Orokorrean (San Juan plaza, 1. 31620 Uhartea).

Uhartea, 20.....(e)ko .....ren .....(e)an.

(Sinadura)